

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresa aurrera eraman ahal izateko, lehen eta behin produktua fabrikatu egin beharko genuke, eta produktua sortzeko behar diren materialen kostuak aurrera eraman ahal izateko inbertsio bat egin beharko genuke, ahal izanez gero gure poltsikotik dirua jarriko genuke, baina diru kantitate hori oso altua bada, diru laguntzak edo on-line dirua eskatzeko orrialdeetara joko genuke (crowdfunding), produktua fabrikatu ondoren, eta frontoi edo enpresek produktua erositakoan ordainketa bakarrean egingo lukete. Beste diru sarrera bat, baina epe luzera begira publizitatea izango litzateke, baina honako aukera hau enpresa edo produktuak ospea lortzen duenean. Bestalde, produktua txapelketa jakin batzuetarako alokatzea ere diru sarrera bat izango litzateke.

